

PRENTSA OHARRA



BIZKAIKO DANTZAK ETA DANTZARIAK

Soka-dantzaren, Eguzki dantzaren edo Lekeitioko Kaixarrankaren erritmoek mundu bizi eta aldakor batera eramango gaituzte; dantzan egiten duen komunitatearekin batera bilakatzen den mundura, hain justu

Ekitaldia	"Bizkaiko Dantzak eta Dantzariak" erakusketaren aurkezpena
Eguna	Osteguna, martxo 21
Lekua	Euskal Museoak, Miguel de Unamuno plaza 4
Ordua	10:30
Aurkezlea	Josune Ariztondo Akarregi, Kulturako diputatua eta Euskal Museoaren Patronatuko Batzordearen presidentea Amaia Basterretxea, Euskal Museoaren zuzendaria Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren ordezkari gisa, José Mari Oyarzabal presidentea, Jon Gaminde eta Jon Pertika

Bilboko Euskal Museoak atsegin handiz gonbidatzen zaituzte "Bizkaiko Herri Dantzak" aldi baterako erakusketaren aurkezpenera

Bilboko Euskal Museoak eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak indarrak bildu dituzte, erakusketa hau antolatu ahal izateko. Bertan, dantzen eta erabilitako arropa nagusien bitartez, Bizkaiko Lurralde Historikoko dantzei buruzko ahalik eta ikuspeirik zabalena eskaini nahi da.

Figurak eta segizioak, musika-erritmoak, dantzak, eta hori guztiori inguratzen eta identifikarazten duten eszenografiak eta arropak ikusi ahal izango dira erakusketan.

*Erakusketak atal nagusi bi ditu: **Herri dantza eta Erritu dantza.***

I. aretoa.- Herri dantza agerpen kolektibo eta ludikoa da, komunitate jakin baten ospakizunen edo jaien barruan egiten dena komunitate osoaren partaidetzarekin. Hauek dira herri dantzarik esanguratsuenak: Erromeria, Soka-dantza, Erregelak, Mahai gainekoak eta Txakolin-dantza.

II. aretoa.- Erritu dantza egitura zehatzekoa da, bai berau dantzatzen dutenen eraketa itxiari dagokionez eta bai dantzaren urrats eta koreografiaren garapenari dagokienez, eta berezkoa duen musikaren akordeak jarraitzen ditu. Hauek dira dantzarik esanguratsuenak: Dantzari-dantza, Kaixarranka, Entradillak, Errebonbilloak, Danza de varas, Ezpata-dantza eta Saragi-dantza.

Aretoetako bakoitzean, dantzei buruzko ikus-entzunezko muntaia bat ikusi ahal izango da.

Era berean, Iñaki Irigoienek atal berezia izango du erakusketan, Bizkaiko dantzen munduari egin dion ekarpena dela eta. Bere landa-lanei, inkestei eta artxiboetako ikerketei esker, dantza ugari berreskuratu edo birsortu ahal izan dira.

ERAKUSKETAREN FITXA

Izenburua: Bizkaiko Dantzak eta Dantzariak
Antolatzailea: Euskal Museoa. Bilbao. Museo Vasco
Data: 2013-03-21 / 2013-06-23
Lan kopurua:
Argitalpenak:
Jarduera paraleloak: 30'-ko **Bisita gidatuak**

Dantza Ekitaldiak

Apirila eta ekaina bitartean, hilabete bakoitzeko larunbat batean, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak goizeko hiru emanaldi antolatuko ditu Bilboko Plaza Barrian, Bizkaiko zenbait dantza-talderen eskutik. Dantza-taldeak Euskal Museotik irtengo dira, Unamuno plazatik.

2013ko apirilaren 20an, 13:00etan

DURANGALDEKO DANTZAK

Abadiñoko Talde Batuak, Berrizko San Lorentzo, Berrizko Iremiñe, Garaiko Dantza Taldea, Iurretako Mikel Deuna, Izurtzako Mendi Gain eta Mañariko Dantza Taldea.

2013ko maiatzaren 11n, 13:00etan

LEA-ARTIBAI ESQUALDEKO DANTZAK

Lekeitioko Etorkizuna eta Markina-Xemeingo Zerutxu dantza-taldeak.

2013ko ekainaren 1ean, 13:00etan

BIZKAIKO BESTE ZENBAIT DANTZA

Santurtziko Mendi Alde, Lanestosako Los Danzantes, Basurtuko Beti Jai Alai eta Durangoko Kriskitin dantza-taldeak.

Laguntzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkarte eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.



BISITARIENTZAKO INFORMAZIOA

